



**Arartekoaren 2016R-1086-16 Ebazpena, 2016ko azaroaren 15ekoa. Honen bidez, Gasteizko Udalarari gomendatzen zaio, 2017ko oportetako programa hobetzeko aurreikusi duen prozesuan, azter dezala plazak esleitzeko prozeduraren fase guztietan heziketa behar bereziak dituzten neska-mutilentzako plazak erreserbari eusteko aukera.**

### Aurrekariak

1. Herritar batek Arartekora jo zuen, bere esku-hartzea eskatuz, Gasteizko Udalak 3 eta 17 urte bitarteko pertsoneri zuzendutako udako jardueretarako plazak esleitzeko ezarrita duen sistema dela-eta.

Heziketa behar bereziak dituen nerabe baten ama da kexagilea. Udaleko jardueren eskaintza horretara aurkeztu da semea. Zozketa bidez esleitzen dira plazak, eta, zozketa horretan, aurreikuspenei jarraiki, eskainitako plazak % 6 gordetzen zaie heziketa behar bereziak dituzten eta baldintza hori egiazta dezaketen pertsoneri.

Erakunde honek egiaztatu ahal izan zuenez, izen-emateko prozesuak hiru zati dauzka: 1) zozketan parte hartzeko eskaera; 2) plazak formalizatzea, zozketa bidez esleitu ondoren; 3) plaza libreen eskaera eta formalizazioa, zozkatu diren plazak formalizatu ondoren. Horietan, aurreko faseetan parte hartu dutenek nahiz lehen aldiz egiten dutenek har dezakete parte.

Kexagileak azaldu zuenez, heziketa behar bereziak dituzten pertsonentzat gordetako plazak zozketan parte hartzeko eskaera aurkeztu zuen bere semeak. Zozketa bidez ez ziotenez plazarik esleitu, zozkatutako plazak formalizazio aldia amaitu arte eta plaza libreak zeuden ala ez argitaratu arte itxaron zuen. Heziketa behar bereziak dituzten pertsoneri gordetako plaza huts bat zegoela egiaztatu zuenean, bertara joan zen hirugarren fasearen epea ireki zen egunean, semearentzako plaza eskuratzeko xedez.

Epea ireki eta hiru minutu ere igaro ez zirenean, heziketa behar bereziak dituzten pertsonentzat gordetako plaza formalizatzeko eskuragarri ez zegoela baieztatu zuen kexagileak. Azaldu ziotenaren arabera, programa informatikoak plaza libre bihurtzen ditu plaza guztiak hirugarren fasean, eta ez du errespetatzen behar bereziak dituzten pertsonentzako plazak erreserba. Horrela, bada, dirudienez, semeak ezin izan zuen hutsik geratutako plaza eskuratu, baina ez heziketa behar bereziak dituen beste batek lehenago formalizatu zuelako, programa informatikoak hirugarren fasean plaza perfilatua galtzea eragiten duelako baizik.

Beste alde batetik, adierazi zuen ez zegoela ados heziketa behar bereziak dituzten pertsonen kasuan eskaerak aurkezteko prozedurak mugatuagoak izatearekin. Kasu horietan, aurrez aurre egin behar da eskaera, nahitaez aurkeztu behar baita egoera hori egiaztatzen duen dokumentazioa. Gainerako





eskatzaileek udalaren web orriaren bidez edo telefono bidez ere auzer dezakete eskaera.

Kexagileak erreklamazioa jarri zuen udalean, arazoaren berri emanez.

2. Kontatutako egitateak eta udalaren web orrialdean jasotako informazioa aztertuta, Arartekoak Gasteizko Udalera jo zuen, heziketa behar bereziak dituzten pertsonen zuzendutako plaza hutsaren esleipenari buruzko informazioa eskatuz eta bere iritzipean jarriz plazen erreserbaren gaineko gogoeta batzuk, ekintza positiboko neurritzat hartuta horiek, bai eta eskaerak aurkezteko prozedurari buruzko gogoeta batzuk ere. Gogoeta horiei lotuta, aldi baterako neurri zuzentzaileez galdetu genion.

Udalaren udako programaren gaineko azalpen orokor batekin erantzun zuen Gasteizko Udalak; bestetik, plazak kudeatzeko prozesuaren deskribapen nahiko xehea eman zuen eta, azkenik, Arartekoak azaldutako kontu bakoitzarekin zuen jarrera azaldu zuen. Bestalde, Udaleko Gazteria Zerbitzuak kexagileak aurkeztutako kexari eman zion erantzuna erantsi zuen.

### Gogoetak

1. Heziketa behar bereziak dituzten haurrentzako plazen kupo jakin bat erreserbatzeari buruzkoa da lehenengo kontua.

Udalaren web orrialdean jasotako informazioaren arabera, udalak bere erantzunean berretsi du, gainera, informazio hori, prozesuaren hirugarren fasean, hau da, lehenengo esleipenetan ez formalizatzeagatik libre geratu diren plazetan izena emateko fasean, plazak ez dira bereizten. Hori ez da sistema informatikoaren errore batengatik gertatzen (hasiera batean kexagileak eta erakunde honek uste zuten bezala), baizik eta esleipen-prozedura horrela dagoelako definituta, eta tresna informatikoak agintzen diotena egiten duelako. Jarduera programa bakoitzean ahalik eta plaza gehien estaltzea da sistema horren xedea, eta bete gabeko plaza liberrik ez geratzea amaieran. Horretarako, behin plaza hutsak ezagutzen direnean eta herritarrei horien berri ematen zaienean, eskaera-ordena zorrotzean esleitzen dira.

Hala ere, bi datuk pentsarazi diote erakunde honi esleipen-prozesu amaierara arte eduki nahi dituela udalak heziketa behar bereziak dituzten pertsonen gordetako zenbait plaza. Honako hau da lehenengoa: prozesuaren hirugarren fasean, lehenengoan bezalaxe, eskaerak aurkezteko bide ezberdinak daude ezarrita heziketa behar bereziak dituztela egiazta dezaketen (eta prozesuaren lehenengo fasean eskaera aurkeztu ez duten) pertsonentzat. Bigarrenak zerikusi handia du aurrekoarekin, eta hau da: udalak jakinarazi duenez, heziketa behar bereziak dituen pertsona bat azken fase horretara sartuko balitz (gogora dezagun profil bereizirik gabeko plazara sartuko litzatekeela), bere inguruabar berberak dituzten gainerako pertsonen bezalako arreta





emango litzaioke, hau da, profesional espezifikoak, laguntzeko profesionalak eta abar.

Erakunde honen ustez, udalari helarazi genion bezalaxe, heziketa behar bereziak dituzten neska-mutilentzat plazen % 6 gordetzea ekintza positiboko neurria da, adin txikiko horiek hiriko bizitza sozialean, hezkuntzakoan eta kulturean erabat har dezaten parte, udako aisialdi programen bidez. Beraz, arrazoizkoa dirudi administrazio horrek plazak esleitzeko ezarri duen esleipen-eta formalizazio-prozesu osoan zehar eusteak aipatu neurriari, prozesuaren une batean ere ez dadin gal gordetako plaza profila.

Alabaina, udalak proposamen horri erantzun dio jakinaraziz 2017ko oporretako programa hobetzeko aukera ezberdinak aztertuko dituztela, eta hobekuntza horiek oraindik ezin daitezkeela zehaztu, udaleko zerbitzu eta sail ezberdinen arteko ikerketa behar baitute. Tresna informatikoak, edonola ere, abiaraziko diren hobekuntzak jasoko ditu, eta eskatzen zaionari erantzungo dio.

2. Eskaearak aurkezteko eta plazak formalizatzeko prozedurari dagokionez, indarrean dagoen prozedurak ezartzen du nahitaezkoa dela aurrez aurreko bidea erabiltzea heziketa behar bereziak dituzten pertsonentzat, inguruabar hori egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu behar baitute. Dirudienez, horixe da arrazoi nagusia. Bada, Arartekoak udalari galdetu zion ea ezin daitekeen beste bitarteko batzuen bidez entregatu dokumentazio hori (web orrialdearen bidez, adibidez), eskaera aurkezteko bideak zabalduz horrela, eta beste pertsona batzuen eskura daudenekin parekatuz.

Udalak adierazi du datu pertsonalak babesteko araudiak erakunde batzuk baldintzatzen dituela behar diren tresna telematiko seguruak ez badauzkate, ez zenbait kudeaketa aurrez aurre egitera behartzen dituela horrek. 2016an horixe gertatu dela ondorioztatu dugu hortik. Zera adierazi du jarraian: *"actualmente, el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz ya dispone de los medios necesarios para poder implementar mejoras en futuras ediciones del Programa Vacacional, por lo que trabajaremos en la mejora de las herramientas telemáticas y en los procesos de trabajo tendentes a facilitar la presentación de solicitudes y documentación del Programa Vacacional a través de la página web para el conjunto de la población"*.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

## GOMENDIOA

2017ko oporretako programa hobetzeko aurreikusi duen prozesuan, azter dezala plazak esleitzeko prozeduraren fase guztietan heziketa behar bereziak dituzten neska-mutilentzako plazen erreserbari eusteko aukera.





Plaza guztiak esleitu ondoren, plaza libreak hutsik geratuko balira eta heziketa behar bereziak dituzten pertsonak erreserbatutako plazetara iritsi gabe geratuko balira ezarritako kupoa gainditu delako, plaza libreak eskuratzeko aukera izan dezatela horiek, behar dituzten laguntza guztiekin; beti ere, aukeratu den jarduera hori bere beharrekiko egokia bada.

